

D 105/20. 41/20 dekretuaren bigarren puntua baliogabetzea.

Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea.

105/20 DEKRETUA.- Kontuan hartuta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako alarma egoera, 2020ko apirilaren 12ra arte luzatu dena.

Aplikatu daitekeen legeriak ematen dizkidan eskuduntzen arabera, eta Sektore Publikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusita dagoen goragokoak eskumenak bereganatzeko ahalmena erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Baliogabetzea 41/20 Dekretuaren BIGARREN puntua, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea 2020ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte ezartzen zuena.

BIGARRENA.- 2020ko irailaren 15etik azaroaren 15era, biak barne, ezartzea ordaintzeko borondatezko epea, helbideraturiko ordainagiriak epe horren azken egunean kobratuko direlarik.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau plazaratzea BAOn, Ediktu Oholean eta webgunean argitaratuz.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hogeiko apirilaren batean.

ALKATEA

Xabier Cuéllar Cuadra